

EUSKADIKO INGURUMEN ADMINISTRAZIOARI BURUZKO LEGE AURREPROIEKTUAREN GAINEKO TXOSTENA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eskatuta egin dugu txosten hau, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 21. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari emandako eskumena baliatuz (otsailaren 18ko 4/2005 Legea).

Txostenaren helburua da, batetik, 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan eta Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaz onartutako jarraibideetan agindutakoa behar bezala betetzen dela egiaztatzea, eta, bestetik, hobekuntzak proposatzea (Jarraibideak, genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko).

Lege aurreproiektuaren helburua da EAEn ingurumena babesteko arau-esparru eguneratu bat ezartzea, eta pertsona fisiko zein juridikoen eskubideak eta betebeharrak zehaztea, besteak beste, honako helburu hauek lortzeko:

- Herritarrak babestea, ingurumen-presio eta arriskuen aurrean.
- Ingurugiroa babestea, kalteak prebenitzea eta kaltetutako lekuak leheneratzea.
- Baliabideak efizienteki kudeatzea, ekonomia jasangarri eta hipokarboniko bat sustatuz.

- Klima-aldaketaren eragina mugatzea.
- Ingurumena babesteko erantzunkidetasun publiko-pribatua bultzatzea.
- Ingurumen Administrazioaren funtzionamendua hobetzea administrazio-prozedurak sinplifikatuz eta bateratuz, betiere ingurumenean eragina duten jardueretan esku hartzeko teknikak araututa, legean ezarritako baldintzak kontuan izanik.
- Informazioa ikuskatu, eman eta publikoki hedatzeko mekanismo eraginkorrak ezartzea, legearen aplikazio-eremuan sartutako jardueren kontrola errazteko.
- Ingurumenean eragina duten jardueren antolamenduan administrazio publikoek eta gainontzeko organo eskudunek dituzten eskumenak koordinatzeko beharrezkoak diren neurriak sustatzea.
- Garapen jasangarria bermatzea, Nazio Batuen Erakundeak onartutako Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeko ekarpena eginez.

Beraz, xedapen orokorra da, zer-nolako genero-eragina duen ikusteko ebaluatu beharrekoa, Lehenengo Jarraibidearen 2.1. atalean ezarritakoarekin bat etorritz. Horretarako, araua sustatu duen organoak generoaren araberako eraginari buruzko txostena egin du, I. eranskinean zehaztutako baldintzen arabera eta Lehenengo Jarraibideko 3. eta 4. ataletan zehaztutakoarekin bat etorritz.

Egiaztatu da bete direla 4/2005 Legean eta Generoaren araberako eraginari buruzko txostena egiteko Jarraibideetan ezarritako izapide formalak.

Txostenaren edukiari dagokionez, adierazi nahiko genuke positibotzat jotzen dugula atal eta galdetegi guztiak betetzeko egindako ahalegina, baita informazioa bilatzeko eta datuak eguneratuta eta sexuaren arabera banatuta emateko egindakoa ere.

Txostenak islatzen duenez, araua pertsona fisiko eta juridikoen eskubideak eta betebeharrak zehaztera bideratuta dago, gizonen eta emakumeen artean bereizketarik egin gabe eta berdintasunaren gaia esplizituki jorratu gabe. Aldiz, bai hartzen du xedetzat honako hau: «Nazio Batuen Erakundeak onartutako Milurteko Garapen Helburuetan ezarritako jomugak betetzea». Txostenak gaineratzen du gomendagarria litzatekeela arauaren behin betiko testuak bat egitea Agenda 2030 egitasmoan ezarritako Garapen Jasangarriko Helburuekin. Bertan aldarrikatzen denez, ahalbidetzen bada emakume eta neskek hezkuntza-sistamarako, arreta medikurako eta lan duinetarako sarbidean berdintasuna izatea, eta, erabaki politiko eta ekonomikoak hartzeko prozesuetan emakumeak ordezkaturik baldin badaude, ekonomia jasangarriak sustatuko dira, eta onuragarria izango da bai gizarteentzat bai humanitatearentzat. Izan ere, ezarritako Garapen Jasangarriko 17 Helburuak eta 169 jomugak Milurteko Garapen Helburuetatik harago doaz: pobreziaren oinarriak eta pertsona guztien onerako izango den garapena lortzeko behar unibertsala jorratzen dituzte. Helburuek garapen jasangarriaren hiru dimentsioak jorratzen dituzte: hazkunde ekonomikoa, gizarte-inklusioa eta ingurumenaren babesa. Hiru elementuok

elkarrekin lotuta daude eta guztiak dira funtsezkoak pertsonen eta gizartearen ongizatea lortzeko.

Pobrezia modu eta maila guztiak desagerraraztea ezinbesteko baldintza da garapen jasangarria lortzeko. Horretarako, hazkunde ekonomiko jasangarri, inklusibo eta bidezkoa sustatu behar da, guztientzako aukera handiagoak sortuz, desberdintasunak murriztuz, oinarrizko bizi baldintzak hobetuz, garapen sozial inklusibo eta bidezkoa bultzatuz, eta natur baliabideen eta ekosistemen antolamendu integratu eta jasangarria sustatuz.

Hori lortzeko oinarrizkoa da gobernuek helburuok propietzat hartu eta berauek lortzeko marko nazionalak ezartzea. Herrialdeek helburuon jarraipena egin eta izandako aurrerapausoak aztertzeko erantzukizuna dute, eta, horretarako, ezinbestekoa da datu fidagarri, ulergarri eta egokiak biltzea.

Inpaktu txostenaren edukiari dagokionez, bertan kontsumo ohiturei buruzko datuak, herritarrek ingurumenaren gainean duten pertzepzioari buruzkoak eta emakume zein gizonezkoek sektorean duten presentziari buruzkoak ematen dira. Adibidez, ikus daiteke sarri gure etxebizitzetan eta lantokietan igarotzen dugun denborak, egiten ditugun zeregin motek eta ohitura jasangarriagoen aurrean dugun jarrerak baldintzatzen dituztela gure kontsumitzeko moduak eta sortzen ditugun baliabide eta/edo hondakin kopuruak. Ingurumenaren aldeko neurriak hartzeari buruz gizonezkoek eta emakumezkoek dituzten jarreraren

inguruan, berriz, datuek frogatzen dute emakumeak prestago daudela garapen jasangarrian eragin esanguratsua duten zenbait baliabideren kontsumo eta kudeaketa arduratsuagoaren aldeko murrizketak eta obligazioak ezartzeko.

Lan arloa aztertuz gero, Ikerketa, Garapena eta Berrikuntzarekin lotuen dagoen eremua bioteknologia dela esan daiteke, eta, bertan, emakumezkoen portzentajeak nabarmenki gaitzen du gizonezkoena; zehazki, % 62,3 dira emakumeak eta % 37,7 gizonezkoak.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da Eustatek irakaskuntzaren lotuta jasotako datu estatistikoaren arabera, ingurumen kudeaketa edo ikerkuntzarekin lotuago dauden hainbat gradu ikasketetan emakumeen portzentajea gizonezkoena baino handiagoa dela (biologian edo ingurumen zientzietan matrikulatutako ikasleen % 50 baino gehiago dira). Era berean, EAEn gradu ikasketetan matrikulatutakoaren portzentajea sexuaren arabera aztertzen badugu, ikus dezakegu *Cifras 2016* lanean jasotako datuen arabera Marketin, Industri Diseinuko Ingeniaritza, Produktu Garapena eta Ingurumen Zientziak bezalako ikasketetan antzekoa dela gizonezkoen eta emakumezkoen portzentajea (matrikulatutakoaren % 49,6 dira emakumeak eta % 50,4 gizonezkoak).

2011/2012 ikasturtean matrikulatutako ikasleak	E. %	G. %
Biologiako gradua	% 61,0	% 39,0
Ingurumen Zientzietako gradua	% 51,0	% 49,0
Ingurumen Ingeniaritzako gradua	% 44,0	% 56,0
Meatzaritza eta Energia Teknologiaren Ingeniaritzako gradua	% 22,0	% 78,0
Itsas Ingeniaritzako gradua	% 9,0	% 91,0

Geuk egina irakaskuntzako estatistikaren datuetan oinarrituta. EUSTAT

Baliabideak eskuratzeko ematen diren desberdintasunak etorkizuneko arauak edo administrazio-egintzak desagerrarazi edo, behintzat, gutxitu egingo dituen aztertzerakoan, txostenak ez du aldaketarik hauteman. Ildo horretan, erronkatzat jotzen da substantzia jakinek emakume eta gizonengan dituzten ondorioen gaineko ezagutza handitzea, horrek gizarte guztiaren babesa hobetzea ahalbidetuko bailuke. Horren erakusle, azterketek egiaztatzen dutenez, emakumeen osasuna kaltetuagoa gerta daiteke gizonena baino ingurugiroko hainbat agenteren eragina dela medio, bai landa ingurunean eta bai hirian, zenbait lanbidetan –nekazaritza, industria kimikoa, farmazia-industria, kosmetika, eta abar– erabiltzen diren produktuekiko kontaktuagatik eta ingurumenean dauden elementu kimiko iraunkorren eraginez. Hein handi batean, hori lanbide eta lan eremu jakin batzuetan emakumeen presentzia handiagoa delako gertatzen da, baita emakumeok izaten dituzten lanaldi luzeengatik ere.

Horiek horrela, frogatutzat jo daiteke ingurumenak efektu desberdinak eragiten dituela gizonezkoen eta emakumezkoen osasunean, batzuen eta besteen ezaugarri fisiko eta psikologikoen arabera. Lanbide jakinetan emakumeen presentzia handiagoa izateak, gainera, substantzia kimiko jakinen aurrean esposizio handiagoa izatearekin lotutako hainbat gaixotasun jasateko duten arriskua areagotzen du; hori arnasa hartzeko arazoetan, azaleko alergietan, asma bronkialean, errepikazko bronkitisean eta dermatitisean isla daiteke.

Horregatik, beharrezkoa da osasun eta ingurumen arazoak aztertzean genero sentiberatasun handiagoa ekarriko duten legeak eta araudiak aplikatzea eta ikerketa gehiago egitea, non sexuaren arabera bereizitako azterketak egingo diren eta generoa analisirako kategoria gisa erabiliko duten. Horretarako, beharrezkoa da adieraztea zeintzuk diren arauak gizonen eta emakumeen osasunean izango duen benetako eragina aztertzeko aurreikusitako jarraipen adierazleak eta ebaluazio mekanismoak.

Bestalde, arauan edo administrazio-ekintzan proposatutako helburuak eta neurriak emakumeei eta gizonei ematen zaizkien gizarte-arauak edo balioak gainditzeko edo aldatzeko lagungarriak izango ote diren aurreikuste aldera, txostenak adierazten du eskubide eta betebeharrak berdinak direla pertsona guztientzat, gizonen eta emakumeen artean inolako desberdintasunik ezarri gabe. Honakoa gaineratzen du: «Ez da aurreikusten etorkizuneko Legean planteatutako neurriak gizonei edo emakumeei ematen zaizkien gizarte-arauak edo balioak gainditzeko edo aldatzeko lagungarriak izango direnik. Baina, aldiz, baliteke ingurumenarekin lotutako lan gehiago sortzea, eta, gero eta gehiago, emakumeak dira ikasketotan matrikulatzen direnak».

Ildo horretan, garrantzitsua litzateke Legeak eragin nahi duen eremuaren gaineko informazio zehatzagoa eskaintzea, hau da, ingurumenaren babeserako marko arauemaile guztia eta pertsona fisiko eta juridikoen eskubideak eta betebeharrak. Horrela, aipatu berri duguna berresteko edo ez, interesgarria

litzateke sexuaren arabera banatutako datuak ematea, adibidez, aurkeztutako eta diruz lagundutako eskaeren ehunekoak, gehienbat emakumez osatutako erakundeen gaineko datuak, berdintasuna sustatzen duten erakundeen gaineko datuak, azken urteotan izan duten bilakaera, ingurumen arloko plangintza espezifikoak egitera bideratutako langile kopurua... Era berean, interesgarria litzateke baita partaidetza prozesuetan parte hartu duten emakume eta gizonezkoen gaineko datuak sexuaren arabera banatuta izatea.

Azkenik, **lege-aurreproiektuaren edukiari** dagokionez, honakoa proposatzen da:

- Pertsonen eskubideei buruzko arauaren 5. artikuluan, aipamen bat sartzea ingurumen egoki batez gozatzeko eskubideak, adierazpen hutsetik harago, neurri zehatzak ere eskatzen dituela jasoz, guztiek berdintasunean goza ahal izan dezaten, izan gizon ala emakume. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.2 artikuluan adierazten den bezala, «euskal herri-aginteek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarrizko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko».
- Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 46. artikuluan aurreikusi bezala, gomendagarria litzateke

honako Legen honen 8. artikuluan jasotzea administrazio publiko ezberdinek, euren eskumenak gauzatzerakoan, beharrezko neurriak hartuko dituztela «beren ingurumen-, etxebizitza-, hirigintza- eta garraio-politiketan eta -programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, horretarako, besteak beste, hauek hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egin eta pertsonak zaintzea erraztea, bizitza pertsonala, familia eta lana uztartu ahal izatea erraztea; bai eta, politika eta programa horiek diseinatu eta betetzeko orduan, emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere».

- Era berean, gomendagarria litzateke 9. artikuluan erregulatutako Ingurumen Esparru Programak genero ikuspegia kontuan izatea. Ildo horretan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4 artikulua printzipio orokor gisa ezartzen du genero-ikuspegia txertatzearena. Honako hau dio zehazki: «Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten». Era berean, Lege horrek honako hau aurreikusten du 18.1. artikuluan: «Arauk garatu eta aplikatzerakoan, bai eta **planak**, programak eta politika publikoak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-agintariek

modu aktiboan izango dute kontuan emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua».

- Hori dela eta, ingurumen arloko plangintza espezifikoetan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko aholkuak emateko, komeni da sailean berdintasun-politikak sustatzeko eta koordinatzeko ardura duen unitate administratiboko adituen aholkularitza baliatzea.
- Bestalde, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 23. artikuluan ezarritakoarekin bat, gogoratu behar da, testuaren 11. artikulua araututako Ingurumen Kontseilua osatzerakoan bermatu behar dela ahalmen, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izatea.
- Gainera, arauaren 15. artikulua duen garrantzia gogoratu behar da (ingurumen partaidetza), izan ere, parte hartze prozesu hori gizonen eta emakumeen parte hartze orekatua bermatuz eta genero ikuspuntua eta kolektibo eta egoeren aniztasuna kontuan izanik egin behar da. Oreka numeriko hutsetik harago, garrantzitsua da ere estrategia batzuk garatzea kontuan hartuz emakumeek eta gizonek aukera eta gaitasun desberdinak izan ditzaketela ingurumenaren gaineko erabakiak hartzen diren eremuetan parte hartzeko.
- Halaber, gero ebaluazioa eta segimendua egiteko asmoz, komeni da argi adieraztea beharrezkoa dela partaidetzari buruzko datuak sexuaren arabera berezita jasotzea, bai eta egindako proposamenen tipologia ere.

- Bestalde, 4/2005 Legearen 3.4, 16. eta 18.1 artikuluek aurreikusitakoaren arabera, arauaren 23. artikuluari erreferentzia egin behar zaio. Bertan jasotzen denez, administrazio publikoak derrigortuta daude gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna zein emakumeek eta gizonek ingurumen arloan dituzten egoera, baldintza, helburu eta beharrak modu aktiboan bermatzera, eta, horretarako, analisiak, azterketak eta proposamenak egiterako orduan, kontuan izan beharko dute genero ikuspegia, sexuaren arabera bereizitako informazioa erabili beharko dute eta gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak hobeto ezagutzea ahalbidetuko duten adierazleak izan beharko dituzte.
- Ingurumen prozeduretan interesa duten pertsonen erregistroarekin lotuta (71. artikulua), Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikuluan ezarritakoarekin bat, beharrezkoa izango da sexu-aldagaia bertan sartzeari, ostean datuak sexuaren arabera bereizita bildu eta ustiatu ahal izateko, adibidez prozedurotan emakumeek eta gizonek duten parte hartzea aztertzerako orduan.
- Era berean, sexu-aldagaia testuaren 114. artikulua erregulatutako ingurumen arloko arau-hausleen erregistroan ere sartu beharko da. Hori horrela eginez gero, zigortutako gizon eta emakume kopurua ezagutu ahal izango dugu, baita zer arau-hauste egin duten ere.
- Bestalde, 81. artikuluan Erosketa Publiko Berdeko kontratazioetako administrazio klausulen eta preskripzio tekniko zehatzen pleguei egiten

zaie erreferentzia. Ildo horretan, horietan ere berdintasun klausulak sartzeko aukera aztertzea interesgarria litzatekeela azpimarratu nahi dugu.

- Era berean, gomendagarria litzateke administrazio publikoak sustatutako ingurumen prestakuntzako ikastaroetan edukiak sartzea langileek genero eta berdintasun arloen garrantzia uler dezaten, langileok sentsibilizatuz eta gaituz eta euren lanetan ezagutzok kontuan izan ditzaten ahalbidetuz.

Azkenik, adierazi beharrezkoa dela, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legearen 18.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, lege aurreproiektuaren gaztelerazko testuan jasotako hainbat termino berrikusi eta egokitzea, maskulinoan baitaude eskusiboki (“todos aquellos”, “afectados”, “los autores”, “el promotor”, “el interesado”...).

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 12a.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO